

**BIZKAIKO UDALERRI TXIKIAK:  
GOGOETARAKO ZENBAIT DATU**

Irakurleak eskuartean duen idazki honen helburua, Bizkaiko udalerrri txikiei buruzko zenbait datu aurkeztea da; 250-tik 800 biztanlera dituzten udalerrien inguruko gogoeta bultzatzea, alegia. Izan ere, mota honetako herriek ezagutzen ari diren biztanleen galera kontutan hartuz, behineneko garrantzia du egon daitezkeen arazoak ulertu eta konponbideak jartzea txikiago bihurtu aurretik. Zentzu honetan, beranduegi izan baino lehen, desagertzeko bidean egon daitezkeen herrietara bideratu behar dira ahaleginak eta horretarako, behar beharrezkoa da herri hauek bizi duten errealitatea ezagutzea.

Ikerketa egiteko dena dela, ez ditut 250-tik 800 biztanlera dituzten Bizkaiko Udalerrri guztien berezitasunak aztertu. Izan ere, era honetako herriek bizi duten egoeraren imagina zuzen bat egiteko, hamabi udalerrri aztertzea nahikoa dela iruditu zait. Honako hauek dira azterketarako aukeratutakoak: LEA-ARTIBAI eskualdean: **Amoroto** eta **Aulesti**, ARRATIA-NERBIOI eskualdean: **Arantzazu**, DURANGALDEAN: **Izurza** eta **Mañaria**, ENKARTERRIETAN: **Lanestosa** eta **Trutzioz**, BUSTURIALDEAN: **Ereño** eta **Mendata**, URIBE-KOSTAN: **Arrieta**, **Barrika** eta **Fruiz**. Hamabi udalerrri hauek aukeratzekoan, Bizkaiak duen heterogeneotasuna kontutan hartuz, eskualde ezberdinetako

herriak aukeratu ditut. Bizkaia osatzen duten eskualdeen artean bakar bat utzi dut aztertu gabe, BILBO HANDIA hain zuzen ere. Kontutan izan behar da, eskualde honetan ez dagoela 250-tik 800 biztanlera dituen udalerririk.

Ikerketa hiru eratako datuetan oinarritzen da: Lehenengo eta behin, biztanleriaren egoera (biztanleriaren bilakaera orokorra, migrazio mugimenduak eta jaiotzak, heriotzak eta berezko hazkundeak) aztertu da. Bigarrenik, biztanleriaren iharduerari buruzko datuak (sektoreen banaketa, lantegi industrialen bilakaera eta langabezia) aurkezten ditut. Azkenik, protekzio ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza aztertu dut.

### 1.- BIZTANLERIAREN EGOERA

Aukeratutako herrietako biztanleriaren bilakaera orokorra ezagutzeko, 1981. urtetik 1991. urtera herri hauetako biztanlegoa aztertu da urtez urte<sup>1</sup>. Laburbilduz, eta Barrika eta Fruiz-en kasuan besterik gertatzen dela ohartzen bagara ere, aztertzen ari garen bezalako udalerrietan biztanleak gutxitzeko joera argia ikusten da. Zentzu honetan, urtetik urtera biztanle kopuruak txikitzen doaz eta honek, inolako zalantzarik gabe, herrien heriotza esan nahi du.

I-GO TAULA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981-1991

	1981	1982	1983	1984	1986	1988	1989	1990	1991
AMOROTO	425	430	416	415	410	409	406	402	390
ARANTZAZU	282	282	289	290	322	321	322	314	278
ARRIETA	469	461	457	458	430	429	431	432	426
AULESTI	723	723	728	739	703	707	707	713	690
BARRIKA	774	767	737	727	767	773	759	763	872

<sup>1</sup> 1985 eta 1987. urteko datuak ezin izan ditugu eskuratu, ez baitira EUSTAT-en urtekari estatistikoetan agertzen.

	1981	1982	1983	1984	1986	1988	1989	1990	1991
EREÑO	310	309	307	305	296	299	295	293	268
FRUIZ	294	298	296	292	296	347	350	352	310
IZURZA	316	316	316	301	276	281	279	274	271
LANESTOSA	312	309	308	312	314	324	322	312	308
MAÑARIA	563	566	554	553	525	522	516	519	505
MENDATA	396	394	396	396	378	377	379	372	342
TRUTZIOZ	554	550	539	533	528	529	537	546	520

ITURRIA: 1981. URTETIK 1991. URTERARIEKO EUSTAIEN URTEKARI ESTATISTIKOAK

Taula honetan ikus daitekeen bezala, hauetariko herri bakoitzak batezbeste 34 biztanle galdu ditu 1981. urtetik 1991. urtera, hau da, 3 biztanle urteko<sup>2</sup>.

Biztanlegoaren igoera udalerrri bitan eman da bakarrik: Barrika-n eta Fruiz-en. Lehenengokoak 98 biztanle eta bigarrenak 16 irabazi dituzte hain zuzen ere. Herri bi hauen kasuan, eta kokagunea kontutan hartzen badugu, Bilbo Haundian lan egiten duten askok herri hauetara etorri dela bizitzera pentsa daiteke. Barrikaren kasuan bereziki, zaharrentzako egotetxe bat eraikitzeak hazkunde adierazgarri horretan eragin nabarmena izan duela azpimarratu beharra dago.

Salbuespenak salbuespen gauza bat argi agertzen da: 250-800 biztanle dituzten Bizkaiko Udalerrietan biztanleria gutxitzeko joera nabaria dagoela. Are gehiago, horrela jarraituz gero, mende batetan hauetariko herri asko desagertu egingo direla pentsa daiteke.

<sup>2</sup> 1981. urtetik 1991. urtera 26 biztanle galdu ditu Amorotok, 4 Arantzazu-k, 43 Arrieta-k, 33 Aulesti-k, 42 Ereño-k, 45 Izurza-k, 4 Lanestosa-k, 58 Mañaria-k, 54 Mendata-k eta 34 Trutzioz-ek.

Biztanlegoaren gutxitze honen arrazoiak migrazio mugimenduen saldo negatiboan eta berezkoa hazkundera negatiboan aurkitu beharra dago.

### 1.1.- MIGRAZIO MUGIMENDUAK

Barne (Elkarte Autonomoaren barruan egiten direnak) zein kanpo (Elkarte Autonomotik kanpo egiten direnak) migrazioak aztertzen badira, orokorrean herri hauen saldo migratorioa negatiboa dela ohartzen gara. Hau da, orohar herri hauetatik alde egiten dutenak herri hauetara bizitzera doazenak baino gehiago dira.

Migrazio mugimenduei buruz eskuartean ditugun azken datuak aztertzen badigutu adibidez, hau da, 1991. urteko datuei begiratzen badiegu, salbuespenen gaineratik, orokorrean, irabazi direnak baino biztanle gehiago galdu direla ohartzen gara. Barrikako datuak alde batera utziaz (zaharretxearen ondorioz egoera berezi bat bizi duela ez ahaztu), guztira herri hauek 24 biztanle galdu eta 15 irabazi dituztela ohartzen gara.

II. TAULA: MIGRAZIO MUGIMENDUAK 1991. URTEAN

	BIZTANLEAK GALDU	BIZTANLEAK IRABAZI	MIGRAZIO MUGIMENDUEN SALDOA
AMOROTO	7	9	+2
ARANTZAZU	11	3	-8
ARRIETA	7	10	+3
AULESTI	10	5	-5
BARRIKA	14	62	+48
EREÑO	9	9	-
FRULZ	3	5	+2
IZURZA	4	5	+1
LANESTOSA	8	3	-5

	BIZTANLEAK GALDU	BIZTANLEAK IRABAZI	MIGRAZIO MUGIMENDUEN SALDOA
MAÑARIA	1	5	+4
MENDATA	10	4	-6
TRUTZIOZ	8	11	+3

ITURRIA: EUSTAYEN 1992.URTEKO URTEKARI ESTADISTIKOA

Orokorrean beraz, saldo migratorioa negatiboa dela azpimarratu beharra dago. Nolabait esateko jendeak herri txiki hauek utzi eta beste toki batzuetara joateko joera du. Are gehiago, neurriak hartzen ez badira, urteik urtera saldo negatibo hau handitzen joango dela pentsa dezakegu.

Dena dela, eta migrazio mugimenduen eragina zalantza ezina bada ere, biztanleriaren gutxitzearen benetako arrazoia berezko hazkunde negatiboan aurkitu beharra dago.

### 1.2.- JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA BEREZKO HAZKUNDEA

Jaiotzak, heriotzak eta berezko azkundera aztertzen badira zera ikusten da: herri hauek berezko hazkunde negatiboak dituztela, hau da, hiltzen direnak jaiotzen direnak baino gehiago dira. Adierazgarriak dira, zentzu honetan, eskuartearen ditugun azkenengo datuak, 1992. urteko datuak, alegia.

### III. TAULA:

#### JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA BEREZKO HAZKUNDEA 1992. URTEAN

	JAIO	HIL	BEREZKO HAZKUNDEA
AMOROTO	3	1	+2
ARANTZAZU	1	2	-1
ARRIETA	1	8	-7

	JAIO	III	BEREZKO HAZKUNDEA
AULESTI	3	10	-7
BARRIKA	7	17	-10
EREÑO	2	2	-
FRUIZ	1	7	-6
IZURZA	1	1	-
LANESTOSA	1	6	-5
MAÑARIA	4	3	+1
MENDATA	1	7	-6
TRUCIOS	4	7	-3

ITURRIA: 1993. URTEKO URTEKARI ESTADISTIKOA

1992. urtean eman zen berezko hazkunderi dagokionez bezaraz, hauetariko herri bakoitzean batez beste jaio zirenak baino 3 pertsona gehiago hil zirela ikusten da. Eta ez bakarrik larogeitamargarren hamarkadako lehen urteetan, larogeigarren hamarkada osoan zehar ere joera bera nabarmentzen dela, hau da, hiltzen direnak baino gutxiago jaiotzen direla.

Dena dela, eta herri hauetan gertatzen ari denaz inolako ondoriorik atera aurretik, joera hau ez dela herri txikietan bakarrik gertatzen ari oso kontutan eduki behar da. Gizarte aurreratu guztietan bezala, Euskal Herria osoan ere jaiotze tasa txikiak (Europako txikienak hain zuzen ere) ezagutzen ari gara eta honek, biztanleriaren berezko hazkunde negatiboa dakar. Honen ondorio zuzenena zera da: **belaualdien ordezkaketa ez dela behar bezala egiten eta honek herri txikien etorkizuna beltza dela esan nahi du**. Hiltzen doazela apurka apurka esatea gogorra bada ere, horrelako errealitate baten aurrean gaude la onartu beharra dago. Lehen esan bezala, urtez urte hiru biztanle galduz, mende batetan hauetariko zenbait herri desagertu egingo direla azpimarratu daiteke.

Honekin batera, ez da ahantzi behar ere, berezko hazkunde negatiboak herri hauen zahartzea dakarrela eta honek, herrien "bizitza" eta "ekintza gaitasuna" murriztea esan nahi duela. Hau da, gazteak gutxitzen doazen heinean, kultur arloko ekintzak, jaiak edo edozein motatako elkarteak sortu eta antolatzea zaila-  
goa izango dela pentsatu behar dugu. Eta honek, herri hauetako bizi-maila txartzea eta, ondorioz, erakargarritasuna galtzea dakar.

Biztanleriaren egoera eta joera orokorrak ikusi ondoren, iharduera aztertzea pasatuko gara. Hau da, herri txiki hauetako biztanleriak ekoizpen prozesuan duen parte hartzea aztertzea.

## 2.- BIZTANLERIAREN IHARDUERARI BURUZKO DATUAK

Herri hauetako biztanleriaren iharduera ezagutzeko, landu-  
nak sektore ezberdinetan barrena nola banatzen diren aztertu da lehenengo eta behin. Ondoren, lantegi industrialen egoera eta langabezia aztertu dira.

### 2.1.- SEKTOREEN BANAKETA

1986. urtean udalherri hauetan zegoen sektoreen banaketa aurkezteko interesgarria deritzot honako taula hau ikustea.

V. TAULA: SEKTOREEN BANAKETA 1986. URTEAN

	LANDUNAK GUZTIRA	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAJUNTZA	ZERBITZUAK
AMOROTO	162	%24,7	%34,5	%7,4	%33,3
ARANTZAZU	87	%3,5	%48,3	%9,2	%39
ARRIETA	155	%51,2	%10,6	%3,8	%34,8
AULESTI	228	%15	%46,5	%13,8	%39,5
BARRIKA	172	%7,8	%30,8	%9,5	%52,4
EREÑO	95	%19,5	%29,7	%5,6	%46,3


	LANDUNAK GUZTIRA	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
FRUIZ	104	%35	%24,4	%3,8	%37,5
IZURZA	78	%5	%64,1	%3,8	%27
LANESTOSA	70	%40	%14,3	%5,7	%40
MAÑARIA	147	%2,7	%60	%4,8	%32,6
MENDATA	129	%31,8	%29,4	%6,2	%32,5
TRUTZIOZ	144	%31,25	%25,7	%27,7	%40,2

ITURRIA: EUSTATEN 1987. URTEKO URTEKARI ESTADISTIKOA

Ikus daiteken bezala, 1986. urtean industrian eta zerbitzuetan lan egiten zutenen portzentaiak garrantzitsuak baziren ere, zenbait herritan nekazaritzak pixu nabarmena zuen. Hain zuzen ere, 1986. urtean, Arrieta, Fruiz, Lanestosa, Mendata edo/eta Trutziozen nekazaritzaren garrantzia adierazgarria zen.

Hamabi herri hauek osotara hartzen badira, honelakoa zen 1986. urtean sektore ezberdinek banaketa: %22 nekazaritzak, %34 industriak, %8 eraikuntzak eta %36 zerbitzuek.

#### Sektoreen banaketa 1986. urtean



Bost urte geroago, hau da, 1991. urtean ematen zen sektoreen banaketa aztertzen bada, gauzak nabarmenki aldatu direla somatzen da taula honetan ikusten den bezala.




## VI. TAULA: SEKTOREEN BANAKETA 1991. URTEAN

	LANDUNAK GUZTIRA	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAKUNTZA	ZERBITZUAK
AMOROTO	150	%11,3	%43,3	%11,3	%34
ARANTZAZU	101	%4	%45,5	%2	%48,5
ARRIETA	162	%33,3	%17,3	%9,9	%39,5
AULESTI	252	%14,7	%35,3	%10	%40
BARRIKA	298	%4	%19	%12,75	%64
EREÑO	99	%18	%28	%7	%46,4
FRUIZ	124	%25,8	%30,6	%4	%39,5
IZURZA	90	%2,2	%52,2	%7,7	%37,7
LANESTOSA	89	%34,8	%14,6	%15,7	%34,8
MAÑARLA	166	%3,6	%51,8	%9	%35,5
MENDATA	136	%25,7	%30,1	%5,1	%39
TRUTZIOZ	151	%14,5	%37,7	%7,3	%40,4

ITURRIA: EUSTAIEN 1992. URTEKO URTEKARI ESTADISTIKOA

Datu hauen arabera, 1991.urtean sektoreen banaketa honelakoa zen: %16 nekazaritzak, %33,8 industriak, %8,5 eraikuntzak eta %41,7 zerbitzuek.

## Sektoreen banaketa 1991. urtean



Emandako bilakaera aztertzen badugu, 1986. urtean nekazaritzak zenbait herritan berebiziko garrantzia bazuen ere, 1991. urtean sektore honetan lan egiten zutenen portzentaiak asko gutxitu direla ikusten da. Arantzazu-n eta Mañarian izan ezik<sup>3</sup>, aztertutako herri guztietan nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaiak jetsi egin dira. Hain zuzen ere, hamabi herri hauetan, nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaiak %22-tik %16-ra murriztu direla ohartzen gara. Hau da, 6 puntutako galera eman da bost urtetan.

Industrialak aztertzen bada, zenbait herritan sektore honetan lan egiten dutenen portzentaiak igo badira ere (Amaroto, Arrieta, Fruiz, Lanestosa, Mendata eta Trutzioz esaterako), arlo honetan lan egiten dutenen portzentaiak gutxitu zaizkien herriak gehiago direla ohartzen gara. Zentzu honetan, krisi industrialaren eragina ahaztu ezin daitekeen zerbait da.

Aipatzekoa da azkenik, bost urtetan, ia herri guztietan, erai-kuntzan eta bereziki zerbitzuetan lan egiten dutenen portzentaiak igo egin direla. Hain zuzen ere %36-tik %41-era igo da zerbitzuen sektorea.

Datu hauek ikusi ondoren, herri hauek aurrerantzean ere horrelako joera ezagutuko dutela pentsa daiteke. Hau da, gizarte aurreratu guztietan bezala, industrian eta batez ere nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaiak gutxitzen joango direla, zerbitzuetan lan egiten dutenen portzentaiak handituko direlarik.

## 2.2. - LANTEGI INDUSTRIALEN EGOERA

Herri hauetan industriak duen egoera aztertzeko, bi edo langile gehiagoko lantegi industrialen eta hauetan lan egiten dutenen kopuruak aztertu dira 1986. urtetik 1990. urtera.

<sup>3</sup> Herri bi hauetan nekazaritzan lan egiten dutenen portzentaia zerbait igo bada ere, herri bi hauetan nekazaritzak duen garrantzia oso txikia dela izan behar da kontutan.

**VII. TAULA: BI EDO LANGILE GEHIAGOKO LANTEGI INDUSTRIALAK  
ETA LANGILE KOPURUA 1986-1990**

	LANTE- GIAK 1986	LANGI- LEAK 1986	LANTE- GIAK 1987	LANGI- LEAK 1987	LANTE- GIAK 1988	LANGI- LEAK 1988	LANTE- GIAK 1989	LANGI- LEAK 1989	LANTE- GIAK 1990	LANGI- LEAK 1990
AMOROTO	2	56	2	58	2	62	2	58	2	62
ARANTZAZU	2	54	2	77	2	77	2	75	2	74
ARRIETA	-	-	-	-	-	-	1	3	1	3
AULESTI	7	92	7	92	7	106			9	125
BARRIKA	2	10	2	10	2	10	3	30	2	12
EREÑO	1	9	1	9	1	9	1	9	1	9
FRUIZ	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
IZURZA	7	353	10	378	10	377	12	434	13	437
LANESTOSA	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
MAÑARIA	4	62	5	94	5	93	6	96	6	102
MENDATA	1	9	1	9	1	9	1	9	1	9
TRUTZIOZ	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

*ITURRIA: 1987. URTEK 1990. URTERARTEKO EUSTATEN URTEKARI ESTADISTIKOAK*

Taula honen azterketak, hiru ondorio nagusitara eramaten gaitu:

- Alde batetik, aztertutako herrietan lantegi industrialen kopurua txikia dela. Aulesti, Izurza eta Mañaria kentzen baditugu, beste herrietan lantegi industrialen urritasuna nabarmena dela aitortu behar da. Are gehiago, inolako lantegi industrialek ez duten lau herri ere (Arrieta 1989. urterarte, Fruiz, Lanestosa eta Trutzioz) hor daudela ez da ahantzi behar.

- Izurzaren kasua kentzen badugu, herri hauetako lantegi industrialek herri hauetan lan egiteko gai den biztanlegoa baino lanpostu gutxiago dituztela ikusten da. Hau da, biztanleri akti-

boa handiagoa da herriko lantegieek eskaintzen dituzten lanpostuak baino. Eta honek eragin nabarmena du herritarrek beste toki batzuetara bizitzera bultzatzeko.

- Mañarian, Izurzan edo Arrietan lantegi industrialak zabaldu badira ere, orokorrean, azken urteotan Bizkaiko udalerrri txikietan ez dela lantegi industrial berririk eraikitzen esan dezakegu.

Bizkaiko herri txikiek ezagutzen duten lantegi industrialen urritasunaren aurrean, lantegi industrialak eraikitzea beharrezkoa ikusten da. Zentzu honetan, herri txiki hauen berezitasunak kontutan hartuko dituen eta ingurugiroa errespetatuko duen politika industrial baten beharra argia da.

### 2.3.- LANGABEZIAREN AZTERKETA

Langabeziari dagokionez zera esan behar da: herri txiki haue-tako langabezi tasak beste herri batzuetakoak baino txikiagoak direla. Are gehiago, datuek urteetan zehar langabezia gutxitzen joan dela erakusten dute.

**VII. TAULA: LANGABEEN KOPURUA HERRIZ HERRI 1981-1992**

	1981	1984-85	1986	1988	1989	1990	1991	1992
AMOROTO	18	26	31	59	44	23	17	11
ARANTZAZU	16	23	22	16	9	8	10	8
ARRIETA	11	48	47	70	59	45	29	27
AULESTI	8	28	35	34	28	28	35	26
BARRIKA	63	57	68	52	48	37	33	34
EREÑO	6	4	22	22	15	26	16	7
FRUIZ	18	13	18	31	29	23	10	12
IZURZA	13	17	20	17	13	16	12	11
LANESTOSA	6	21	26	18	9	13	14	9
MAÑARIA	21	26	39	26	18	15	30	25

	1981	1984-85	1986	1988	1989	1990	1991	1992
MENDATA	5	13	22	21	15	21	9	7
TRUZIO	16	25	52	50	49	37	34	23

ITURRIA: 1986. URTEK 1992. URTEARRATEKO HUSTATEN URTEKARI ESTADISTIKOAK

Taula honek 1984. urtetik 1989. urtera herri hauek langabezi tasa garrantzitsuak ezagutu zituztela erakusten badu ere, gaur egun langabeziaren ikuspuntutik egoera ez dela batere txarra onartu behar da. Zentzu honetan, herri handiagoek baino langabezi tasa txikiagoak ezagutzen dituztela esan daiteke. Hau da, langabezi tasak industria gehiago garatu den beste alde batzuetakoak baino hainbat txikiagoak dira.

1991. urtean hauek ziren hamabi herri hauen langabezi tasak: %10 Amoroto, %9 Arantzazu, %15 Arrieta, % 12,2 Aulesti, %10 BARRIKA, %14 Ereño, %7,4 Fruiz, %11,7 Izurza, 13,6 Lanestosa, %15 Mañaria, %10 Mendata, %20,9 Trutzioz.

Urte berean Markina-k %14, Lekeitio-k %15 eta Ondarroa-k %14,3-ko langabezi tasak zituztela esaten badugu, aztertutako ia herri guztien langabezi tasak hiru hauenak baino txikiagoak zirela ikusten da. Arrieta, Mañaria eta Trutzioz-en kasuan gainditzen dira bakarrik langabezi tasak hauek. Gonbaraketa Bizkaiko herri haundiagoekin egiten badugu, langabezi tasen ezberdintasuna nabarmenagoa dela ikusten da. Kontutan izan 1991. urtean Bizkaiko osoko langabezi tasa %20,6-koa zela.

Joera honen arrazoia gure ustez, nekazaritzan aurkitu beharra dago. Hau da, era ahulean bada ere, nekazaritza lanpostu sortzaile dela aitortu behar da.

Krisia, batez ere industrialari izan den heinean, industriak garrantzitsua duen tokietan izan du eragina. Ondorioz, langabezi tasa handienak ere gune industrialetan eman dira. Nekazaritzak zentzu honetan, krisia indargabetzen lagundu du, lehen esan den bezala, industria gehiago garatu den tokietan baino langabezi tasa txikiagoak sortuz.

Nekazaritzaren garrantzia txikiagotzen badago ere, nekazaritza bultzatu eta indartu beharra ikusten da. "Monokultibo industrialaren" ondorio ezkorrak murrizten dituen heinean, nekazaritzarentzako irtenbide berrien aldeko apustua egitea interesgarria litzateke.

### **3.- BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA**

Bizkaiko udalerrri txikien berezitasunak aztertzen ari garen honetan, interesgarria da babes ofizialeko etxeen eraikuntza aztertzea. Izan ere, garrantzitsua da herri hauetako biztanleak etxebizitzak lortzeko zer-nolako erraztasunak dituzten ezagutztea.

EUSTATEK, 1992-1993. urteetan aldagai honi buruzko daturik argitaratu ez badu ere, 1981. urtetik 1991. urtera herri hauetan gobernuaren babesean eginiko etxebizitzak urriak direla konturatzten gara.

Hain zuzen ere 12 udalerrri hauetatik bakarrik Aulestin egin dira mota honetako etxebizitzak 1981-1991 urte bitartean. Hain zuzen ere, 1985. urtean protekzio ofizialeko 14 etxebizitza eraiki ziren.

Beste era batetako etxebizitzak eraikiko zirela pentsatzen badugu ere, babes ofizialeko etxeen eraikuntza urria toki hauetan bizitzeko oztopo bat gehiago dela onartu beharra dago. Zentzu honetan, ingurugiroa errespetatuko duen etxebizitza politika bat egitea interesgarria litzateke, batez ere, jende gazteari herri hauetan bizitzeko baldintza baikorrak eskaini asmoz.

### **4.- AZKEN GOGOETAK**

Datu guzti hauek ikusi ondoren, zenbait gogoeta egiteko unea dela esan daiteke. Izan ere, egindako aurkezpenaren helburua herri hauen egoera ulertu eta etorkizunerako hartu beharreko erabakiak ezagutzea baita. Inolako gogoetarik egiten hasi aurretik, aztertutako udalerrien biztanlegoa gutxitzen dagoela

gogoratu behar dugu. Hiltzen direnak jaiotzen direnak baino gehiago direlako zein jendeak herri hauetatik alde egiteko joera duelako, epe luzera hauetariko herri asko hil egingo direla pentsa daiteke.

Egoera honi buelta emateko, eta aurrerantzean ere jaiotze tasak txikiak izango direla onartuz, baldintza egokiak sortzea nahitaezkoa da herri hauetan bizi direnak alde egin ez dezaten eta, ahal den neurrian, jendea erakartzeko.

Gure ustez, puntu hauek kontutan edukitzea beharrezkoa da baldintza egoki hauek sortzerakoan:

1.- Maila ezberdinetan lanpostuak sortu behar dira.

Lehen aipatu bezala, herri hauetara zuzenduriko politika industrial egoki bat garatu beharra dago. Lantegi industrialen urritasunaren aurrean, lantegiak sortzea, hau da, herri txiki hauetako jendearentzako lanpostuak sortzea ezinbestekoa da herri hauen etorkizuna ziurtatzeko.

Bestalde, eta Europatik datorren kompetentziagatik nekazaritzarentzako momentu txarra dela onartuta ere, arlo hau lantzea eta irtenbideak aurkitzea, ez bakarrik interesgarria, beharrezkoa ere badela esan behar da. Izan ere, herri hauek dituzten langabezi tasa txikietan nekazaritzaren garrantzia ez da ahantzi behar. Zentzu honetan, baliabide hau erabili beharra dago.

Nekazal turismoa irtenbide bat izan badaiteke ere, beste formula batzuk bilatzea eta garatzea beharrezkoa da: Uztiaketa hobeto bat egiteko aukera emango duten nekazal kooperatibak, produktu alternatiboak, lan eta ekoizteko era berriak... Nekazaritza jende gaztearentzako irtenbide egoki bat izan daitekeela oso kontutan eduki behar da.

2.- Era guztietako zerbitzuak (hezkuntza, garraioak, kultura, osasuna...) hobegotu behar dira. Izan ere, argi dago bizi-maila hobegotzearekin, herritarrek gutxiago alde egingo dutela eta, era berean, kanpotarrak erakarriko direla.

Honekin lotuta, behar bezalako etxebizitza politika bat nahi-taezkoa ikusten da. Neurri honek, zenbaiten ahotan, ondorio ezkorrak izan baditzake ere, hau da, herri haundietan bizi diren-entzat bigarren etxebizitza bihurtu daitezkeela onartuz ere, etxebizitzaren aldeko apustu garbia egin beharra dago, batez ere herri haueko jende gaztea herri hauean mantentzeko.

Azkenik esan, lanpostu industrialak sortu edo/eta etxebizi-tzak egiterakoan, ingurugiroarekiko errespetatzea ezinbestekoa dela, ez da ahanzi behar herri txiki hauek duten baliabiderik garrantzitsuenetarikoa dela.

### **ERABILITAKO ITURRIAK**

Ikerketa hau burutzeko, Eustatek 1977. urtetik 1993. urtera argitaratu dituen Euskal Urtekari Estatistikoak erabili dira.

*PATXI JUARISTI*  
SOZIOLOGOA